

Proiektua aurrera eramateko funtsezko eragileak beharrezkoak dira. Alde batetik, aniztasun funtzionalari buruzko informazioa eta laguntza jasotzeko, Geu be eta Lantegi Batuekin elkar lanean arituko gara, beharrezkoak ditugun formakuntzak eta baliabideak eskuratzeko. Bestalde, Berbaro eta Zirimola aisialdi taldeekin harremanetan jarriko gara, guk burutuko ditugun ekintza eta irteeren antolaketan laguntzeko.

Horrez gain, ikastola eta ikastetxeekin elkar lanean arituko gara gure zerbitzuak sustatzeko eta ezagutarazteko. Esaterako, Kurutziaga Ikastola, Nevers ikastetxea, Zabalarra eskola... Honekin batera, bezeroak eta laguntza desberdinak lortu genitzake eskolen bidez.

<u>Elkarteak</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>Harremana</u>
Zirimola	Ikastolen elkartearen aisialdi taldea, gelaz kanpoko jarduerak eginez	Aisialdi ekintza eta irteerak antolatzeko laguntza eta gomendioak jasoko genituzke haien partetik, esaterako ze ekintza egin eta zein ez, adin tarte desberdinentzako zein ekintza diren egokienak, eta abar. Planifikazioa eta antolaketa gomendioak elkar banatuko genituzke ere.
Berbaro	Euskaltzalez osatutako elkarte da Berbaro Durangaldean ekiten dute euskararen alde. Euskara zerbitzu arloa eta aisialdi taldea dute.	
Lantegi Batuak	Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukerak sortzen dituzte Bizkaian, pertsona horiek gizarteratzeko, ahalik eta garapen eta bizi-kalitate handiena izateko.	Erakunde eta elkarte hauekin, harreman formala eta arduratsua izango genuke. Beraingandik informazio desberdina eskuratu genuke, konkretuki, aniztasun funtzionala duten pertsonen buruzkoa. Beraiekin, inklusioa bermatzeko gomendioak emateko ere bai.
Geu be	Elkarte hau, pertsona hauen bizi-kalitatea hobetzea da eta euren bizitzan zehar sor daitezkeen beharrei erantzuna ematea alegia. Helburu hauek lortzeko aisialdi proiektua eskaintzen dute.	
AIDAE	Amorebieta-Etxanon desgaitasuna duten pertsonak integratzen laguntzeko sortutako elkarte da, eta garapen soziala eta pertsonala sustatzen du aisialdiko eta denbora libreko proiektuen bidez.	
Kurutziaga ikastola (Durango)	Durango kokatutako ikastola da, bertan gure zerbitzuak aurkeztuko ditugu eta haiekin lanean arituko gara.	Haur eta guraso askorekin harreman zuzena izateko eta gure gura iragartzeko aukera ona izan dezakegu

		haiekin. Bertan ikasten duten haurrentzako aisialdi proposamen berritzailea eskaini nahi diegu.
--	--	--